

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren funtsezko jarduerak produktuaren diseinuarekin eta hobekuntzarekin lotuta daude. Jada merkatuan existitzen den txaleko mota bat hartu eta hobetzea da gure helburua, barruan berogailuak integratuz, langileek lan-jardunaldian hotzik ez pasatzeko. Produktu hau bereziki pentsatua dago kanpoan lan egiten duten pertsonentzat, egunean ordu asko baldintza klimatiko gogorretan eta esfortzu fisiko handia eginez igarotzen dituztenentzat.

Horretarako, gure lana izango da txaleko teknikoaren eta beroketa- eta aireztapen-sistemen arteko integrazioa egitea, produktu osoa, eroso eta segurua sortzeko. Osagai guztiak modu egokian funtzionatzen dutela ziurtatzea ezinbestekoa da, langileen osasuna eta ongizatea bermatzeko. Gainera, produktua gure ingurura egokituko da, Donostiako klima heze eta hotza kontuan hartuta, erabiltzaileek ahalik eta esperientziarik onena izan dezaten.

Beste jarduera garrantzitsu bat kalitate-kontrola da. Txaleko bakoitza probatu eta aztertuko da, lan baldintza gogorretan erresistentea dela, material iraunkorrak dituela eta segurtasun arauak betetzen dituela ziurtatzeko. Horrez gain, hornitzaile eta enpresa kolaboratzaileekin etengabeko koordinazioa egingo da, txalekoak fabrikatzen dituen enpresarekin eta beroketa-zein aireztapen-makinak eskaintzen dituen enpresarekin harreman zuzena mantenduz.

Azkenik, salmenta- eta banaketa-prozesuak kudeatuko dira. Produktua web orri baten bidez eskainiko da, bai enpresentzat bai bezero indibidualentzat, ordainketa bakarra eginez transferentzia bidez. Gainera, unitate kopuru handiak erosten dituzten enpresentzat deskontu bereziak aplikatuko dira, produktua eskuragarriagoa eta erakargarriagoa izan dadin.